



SEGURIDAD VIAL
Y MOVILIDAD SEGURA
en **ÁMBITO URBANO**

HIRIKO BIDE
SEGURTASUNA ETA
MUGIKORTASUN SEGURUA

Álvaro Iturritya

Gasteizko Udaleko Hirigintza, Ingurumen eta Espazio Publikoko Koordinatzaile Nagusia

Gasteiz: mugikortasun aktibo, seguru eta arduratsua lortzeko konpromisoa

"Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana erreferentziazko esparrua da Gasteizen mugikortasun iraunkorra lortzeko aurrerapausoak emateko. Plan horren lehentasunezko helburuak ziren, hain zuzen, joan-etorriak murriztea, banaketa modalerako joera lehengoraztea, garraio publikoa, bizikleta eta oinezko joan-etorriak sustatuta, eta espazio publikoa gozatzeko eta herritarren bizikidetzarako gunehurtzea.

Helburu horiek gauzatzeko, hiriko mugikortasunaren eredu ikuspegi integral batetik aldatzea proposatu da: mugikortasuna eta espazio publikoa elkarrekin landuta, ingurune hori lehentasunezko bideen oinarritzeko sarean berrantolatuta, eskema horren baitan berrantolatzen baitira gainerako sareak. Hala, garraio publikoaren sarea birdiseinatu da, haren lehiakortasuna sustatzeko; bizikleten zirkulazioa bide nagusi batzuetara eta "superetxesailen" barnealdeko bigarren mailako bide batzuetara birbideratu da; eta aldi berean, hiriko bidexken ibilbide sare bat proposatu da, non oinezkoak izango baitu lehentasuna.

Estrategia horren oinarrian, hain zuzen, erabaki politiko eta herri erabaki bat dago, mugikortasunarekin lotutako hiri eredu bat definitzen duena, bai eta hori lortzeko garatu beharreko neurriak definitzen dituen ere, herritarrei mugikortasun aukerak eskaintzeko Plan bat egikaritzeko. Aukera horiek, hain zuzen, mugikortasun aktiboan eta garraio publikoaren sustapenean oinarritzen dira, batik bat.

Hala, espazio publikoa mugikortasunerako ez ezik beste erabilera eta funtzio batzuetarako ere erabiltzea eta joan-etorrietarako autoa erabili beharrean bizikletan oinarritutako mugikortasuna sustatzea bultzatu da, bereziki. Horretarako, hainbat azpiegitura neurri hartu dira (bizikletentzako bideak, trafikoa arintzea, bizikletentzako aparkalekuak...), bai eta araudiarekin lotutako neurri batzuk eta bizikletaren kultura sortzearekin zerikusia dutenak ere.

Hain da horrela, bizikletaz egindako joan-etorriak izugarri ugaltzea azken hamarkadan: Gasteizko joan-etorrien % 12 baino gehiago egiten dira jada bizikletaz. Hazkuntza hori dela tarteko, tirabirak sortu dira espazio publikoaren beste erabiltzaile batzuekin (autoak eta oinezkoak, batik bat). Era berean, bide segurtasunari buruzko tokiko politiken tratamenduan protagonismo handiagoa eman zaio bizikletari; eta ez soilik azpiegituraren ikuspegitik, baizik eta baita zirkulazioaren arautze berri baten aldeko apustu erabakigarri baten bidez ere. Bertan, bizikletak beste tratamendu bat jaso du, lehentasunezko ibilgailu gisa, trafikoa arintzeko helburua betetzeko eta bizikleten zirkulazio seguru eta arduratsua lortzeko, herritar guztientzat zein ikasleentzat; betiere, mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzearen testuinguruan.



C/ Alameda Rekalde 27, Planta 2 - Oficina 2. 48009 Bilbao - BIZKAIA
t. (+34) 94 612 30 07 / info@eventokia.com / www.eventokia.com



ABENDUAK 2 DICIEMBRE
EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA
ARCHIVO HISTÓRICO DE EUSKADI



SEGURIDAD VIAL
Y MOVILIDAD SEGURA
en **ÁMBITO URBANO**

HIRIKO BIDE
SEGURTASUNA ETA
MUGIKORTASUN SEGURUA

Izan ere, hautemandako erronketako bat, Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren baitan jasotako apustu integrala gauzatzeaz gainera, eta oraindik egiteke dauden jardun eta proiektuak gauzatzearekin batera, ikastetxeetan prestakuntza programen edukiak, irismena eta garapena normalizatzea litzateke, bizikletaz modu seguru eta arduratsuan zirkulatu ahal izateko. Bide beretik, gure haurtzaroan ikastetxerako joan-etorrietan izaten genuen autonomia pertsonala berreskuratzea ere izango da helburu."



C/ Alameda Rekalde 27, Planta 2 - Oficina 2. 48009 Bilbao - BIZKAIA
t. (+34) 94 612 30 07 / info@eventokia.com / www.eventokia.com